BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1777

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 7koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Bilbao-Donostia trenbide-lineako Ermuko tartearen eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda onartu, eta titularrei dei egiten diena ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko ekitaldirako.

Ingurumeneko sailburuordearen 2012ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, proiektu osoaren ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egin zen, Ermuko tarte partzialari zegokionez (KP: 3+920 eta 5+528); adierazpen horretan, gainera, eraikitze-proiektua gauzatzeko zenbait baldintza ezarri, eta obrak egiteko eta zerbitzua ustiatzeko zenbait babes-neurri eta neurri zuzentzaile finkatu ziren.

Tarte partzialaren informazio-azterlana Garraio Azpiegituraren zuzendariak behin betiko onartu zuen, 2012ko azaroaren 5ean.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2012ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, Bilbao-Donostia trenbide-lineako Ermuko tartea eraikitzeko proiektua onartu zen.

Eraikitzeko proiektua Bilbao-Donostia trenbide-linearen egungo 43+398 KPan hasten da, Eitzaga aldean, eta bukatu, berriz, 45+139 KParekiko lotura-puntuan, Ermuko geltokitik atera ondorengo bihurgunearen ostean.

Jarduketa 1.600 m ingurukoa da, eta berekin dakar 1.250 m-ko trenbide bikoitzeko saihesbide baten desdoblamendua eta Ermuan geltoki berri bat egitea.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, proiektuan ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta desjabetzeen eranskineko partzela-planoak datoz.

2014ko otsailaren 6ko Ebazpenaren bidez, proiektua burutzeko behar ziren ondasun eta eskubideak jabeei nahitaez kentzeko prozedura abiaraztea eta desjabetzeei buruzko eranskina jendaurrera ateratzea erabaki zen. Interesdunei jakinarazi zitzaien, eta hainbat aldizkaritan argitaratu zen: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (35. zk.) eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (35. zk.), 2014ko otsailaren 20an; «Deia» eta «El Correo» egunkarietan, 2014ko otsailaren 21ean; eta Ermuko eta Zaldibarko udaletxeetako iragarki-oholetan.

Izapide horretan, alegazioak egin zaizkio ondasun eta eskubideen zerrenda argitaratuari, zeinak aztertu eta ezetsi egin baitira banako erantzunean jasotako moduan.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko nahitaezko desjabetze-jardunbideko izapideak egin eta ebazpenak onartzeko, hala ezartzen baitute Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 14.c) artikuluak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13.1.g) artikuluak (dekretu hori bi aldiz aldatua izan zen: lehenik, martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren bidez, eta, bigarren aldiz, abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuaren bidez).

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluak ezartzen du, trenbideak jarri edo lineak zabaltzeko proiektuak ofizialki onartzeak berekin ekarriko duela proiektuaren eraginpeko eta identifikaturiko ondasunak okupatzea onura publikokotzat eta lehenbailehen egin beharrekotzat jotzea; eta horrek ahalmena ematen dio administrazioari Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako jardunbidera jotzeko eta, hortaz, proiektuaren eraginpeko lurrak okupatu edo ondasunak eskuratzeko; horretarako, lehenbizi, desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak zehaztu, titularrak identifikatu eta baloraziorako behar diren datu eta azalpenak jasoko dira aktan, eta perituak ezarritako diru kopurua, ordaindu edo okupatu aurretiko gordailu gisa utzi beharko da; eta, bidezko bada, premiazkotasunak ekarritako kalteen ordaina ere eman beharko zaie.

Ondorioz, jarduketak ikusirik eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 20., 21. eta 52. artikuluetan eta bere erregelamenduaren 56. artikuluan, eta horrekin bat datozen eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakorekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilbao-Donostia trenbide-linean Ermuko tartea egiteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda onartzea, eta lehenbailehen okupatu beharrekotzat jotzea, Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluan xedatutako ondorioekin.

Bigarrena.– Zerrenda horretan azaltzen diren ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea, bertan zehazturiko egun eta orduan, Ermua edo Zaldibarko udaletxera ager daitezen, proiektuak erasandako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egin eta, bidezkoa bada, haiek formalki okupatu ahal izateko. Beharrezkoa izanez gero, eta doakionak hala eskatzen badu, lur-eremura bertara joateko aukera ere izango da.

Ekintza horretara interesdunek berek edo haien izenean jokatzeko behar bezalako baimena jaso duten ordezkoek joan beharko dute, eta ondasunen titular direla egiaztatzen duten agiri-paperak (eskritura publikoak, Jabegoaren Erregistroko ziurtagiria edo informazio-oharrak, etab.) eta eskubideak egiaztatzen dituzten beste edozein agiri-paper aurkeztu beharko dute. Nahi izanez gero, perituak eta notarioa ere eraman ahal izango dituzte, beren kontura.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, aurreko aktak egiteko egunera arte, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte akats posibleak zuzentzeko; alegazioak Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Lakua I, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi edo Garraioetako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 7a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.

BILBAO-DONOSTIA TRENBIDE LINEAKO ERMUKO TARTEAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUA

ERMUKO UDALERRIA

Finka zk.	Katastroko erref.			Jabea eta helbidea	Eragin mota (m^2)			Izaera	Planoetako erreferentzia	Okupatu aurreko aktak egiteko		
										Hilabetea: maiatza		
	Hiritarra	Landa-lurra			Iraunkorra okupazioa	Aldi-baterako okupazioa	Erabilera-zortasun orokorra			Tokia	Eguna	Ordua
		Polig.	Parc.									
1		3	68	Arancibia Areitio, Jose Ignacio eta Salegui Amuchastegui, Iciar		287		Mendi arbolatsuak	OT-01	Zaldibar Udaletxea	27	16:30
						16+28		Mendi arbolatsuak	OT-05 y OTS-xx			
						626+799	438	Mendi arbolatsuak	OT-04 / SP-05 / OT-4xx			
						5019	623	Larrea	OT-02 / SP-03			
						155		Sastradiak	OT-03			
1.1		3	68	Bizkaiko Foru Aldundia		82		Mendi arbolatsuak	OT-05.1	Ermua Udaletxea	27	09:30
						71		Mendi arbolatsuak	OT-04.1			
2		3	74	Ardanza Ormaechea, Jesusa eta Ardanza Ormaechea, Dionisia eta Aramberri Ardanza, Francisco Javier	357	581		Mendi arbolatsuak	OT-09 / OP-03	Ermua Udaletxea	27	10:00
						453		Sastradiak	OT-08			
						1		Mendi arbolatsuak	OT-07			
2.1		3	74	Bizkaiko Foru Aldundia		27		Mendi arbolatsuak	OT-07.1	Ermua Udaletxea	27	09:30
3		3	140	Pilar Barrutia Zubizarreta M.ª Victoria, Iñaki Urizar Barrutia		1105		Haztea	OT-17	Ermua Udaletxea	27	10:30
4		3	156	Ciarsolo Vergara Hr		322		Egur-basoa	OT-13	Ermua Udaletxea	27	11:00
5		3	157	Guisasola Artamendi, Pedro		28		Egur-basoa	OT-16	Ermua Udaletxea	27	11:00
6		3	158	Muguerza Aramburu, Javier eta Muguerza Aramburu Modesto eta Muguerza Aramburu Garbiñe		56		Egur-basoa	OT-14	Ermua Udaletxea	27	11:30
7		3	171	Olaechea Arriaga, María Esther eta Olaechea Arriaga, Maria Lourdes eta Olaechea Arriaga, Miren Lorea		60		Egur-basoa	OT-12	Ermua Udaletxea	27	12:00
7.1		3	171	Bizkaiko Foru Aldundia		29		Egur-basoa	OT-12.1	Ermua Udaletxea	27	09:30
8		3	189	Excavaciones Bergaretxe, S.L.	675	557	232	Larrea	OT-19 / OP-06 / SP-06	Ermua Udaletxea	27	12:30
					496	1367	496	Haztea	OT-18 / OP-07 / SP-07			
9		3	211	Muguerza Aramburu, Javier eta Muguerza Aramburu Modesto eta Muguerza Aramburu Garbiñe		66		Egur-basoa	OT-15	Ermua Udaletxea	27	11:30
10		3	234	Arancibia Areitio, Jose Ignacio eta Salegui Amuchastegui, Iciar	306	98		Mendi arbolatsuak	OT-11 / OP-04	Zaldibar Udaletxea	27	16:30
					1565	61		Mendi arbolatsuak	OT-10 / OP-02			

Finka zk.	Katastroko erref.			Jabea eta helbidea	Eragin mota (m^2)			Izaera	Planoetako erreferentzia	Okupatu aurreko aktak egiteko		
	Hiritarra	Landa-lurra			Iraunkorra okupazioa	Aldi-baterako okupazioa	Erabilera-zortasun orokorra			Hilabetea: maiatza		
		Polig.	Parc.							Tokia	Eguna	Ordua
					686	216+552		Egur-basoa	OT-06 y OT-6xx / OP-01			
10.1		3	234	Bizkaiko Foru Aldundia	350	293		Haztea	OT-11.1 / OP-04.1	Ermua Udaletxea	27	09:30
					22	136		Mendi arbolatsuak	OT-10.1 / OP-02.1			
					593	890		Egur-basoa	OT-06.1 / OP-01.1			
11	034 021 01 001			Comunidad de Propietarios 3, 3 Bis y 1 Bis de Avenida de Bizkaia		55		Kalea	OT-20	Ermua Udaletxea	27	13:00
12	034 018 12 011			Ermuko Udala	115	802		Bidea-zona berdeak	MT-02 / MP-01 / SP-10	Ermua Udaletxea	27	14:00
13	034 018 12 008			Zubizarreta e Iriondo, S.L.		65		Lursaila	OT-21	Ermua Udaletxea	27	13:30
14	034 024 01 006 001			Ermuko Udala	11	52		Bidea	OT-22 / OP-07	Ermua Udaletxea	27	14:00
15	034 024 01 004 001			Ermuko Udala	1	37		Bidea	OT-23 / OP-08	Ermua Udaletxea	27	14:00
16	034 023 01 001 001			ETS		726	175	Bidaiarien geltokia	MT-04 / SP-09	Ermua Udaletxea	27	09:00
17				ETS		6015	8	Trenbidea	MT-03 / SP-08	Ermua Udaletxea	27	09:00
18				Ermuko Udala	740	4783		Bidea-aparkalekua	MT-01 / MP-01	Ermua Udaletxea	27	14:00
19				Ermuko Udala	231			Bidea-aparkalekua	MP-02	Ermua Udaletxea	27	14:00
19.1				Bizkaiko Foru Aldundia	18			N-634 errepidea	MP-02.1	Ermua Udaletxea	27	09:30

ZALDIBARKO UDALERRIA

Finka zk.	Katastroko erref.			Jabea eta helbidea	Eragin mota (m^2)			Izaera	Planoetako erreferentzia	Okupatu aurreko aktak egiteko		
	Hiritarra	Landa-lurra			Iraunkorra okupazioa	Aldi-baterako okupazioa	Erabilera-zortasun orokorra			Hilabetea: maiatza		
		Polig.	Parc.							Tokia	Eguna	Ordua
20		5	208	Vildosola San Martín, Félix			14	Haztea	SP-01	Zaldibar Udaletxea	27	16:00
21		5	172	Murga Murgategi, María Teresa			117	Haztea	SP-02	Zaldibar Udaletxea	27	17:00
22		5	173	Arancibia Areitio, Jose Ignacio eta Salegui Amuchastegui, Iciar			9	Haztea	SP-04	Zaldibar Udaletxea	27	16:30